

Emakunderi ez zaio dirua murriztuko Jaurlaritzarekiko akordioari esker

Txaro Arteaga eta Itziar Fernandezek beren karguetan segituko dute

Emakundek eta Jaurlaritzak akordioa lortu zuten atzo eta Txaro Arteaga eta Itziar Fernandez erakundeko zuzendariak eta idazkari nagusiak karguetan segituko dute. «Emakunderako aurrekontua orotara ez da murriztuko, erakundea eta Jaurlaritzako sailen arteko programen koordinazioaz» burutuko baitira Emakunderen eginkizunak.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Txaro Arteaga eta Itziar Fernandezek atzo gauean plazaratu zuten prentsa-oharrak «Lehendakaritzarekin izandako argitze prozesuaren» berri eman zuen. Elkarrizketa horietan Euskal Autonomi Elkarteko «emakumeen aldeko ekintza bultzatzeko Jaurlaritzaren borondatea» ikusi dute eta baita aipatu helburua lortzearen «baliabide guztiak» jartzeko asmoa.

Krisiak eragindako aurrekontu irizpideak kontutan hartuko dira, batetik, Emakundeko esanetan. Baina, bestetik, «Emakunderen programetarako benetako laguntza ekonomikoa» ere bai. «Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako sailen arteko programen koordina-



Fernandez, Arteaga eta Ardanza Emakunderen egoitza berriaren inaugurazioan.

OLALDE

zioaren bidez» lortuko da aipatu laguntza ekonomikoa, Emakunde eta Lehendakaritzaren arteko akordioaren arabera.

Guzti honen eraginez, hortaz, «Emakunderi zuzendutako aurrekontua ez da orotara murriztuko». Beste hitzetan prentsa-oharrak zioenez, «Emakundek egiten dituen eginkizun nahiz sustapen lanek ez dute aurrekontu arrazoien ondorioz kalterik jasango».

Horretaz gain, Emakundek egin eta Eusko Jaurlaritzak onetsi zuen EAEko Emakumeentzako

Ekintza Positiborako Plana bultzatuko da «epe laburrean» betiere «Gobernuko sailekiko koordinazioaren bitartez». Horretarako, dagokion araua egingo dutela dio Emakundek Jaurlaritzarekin izandako akordioari buruzko oharrak.

EMAKUNDEN SEGITUKO DUTE

Akordioaren puntu guzti hauek direla eta, Txaro Arteaga eta Itziar Fernandezek «lanean segitzeko borondatea» azaldu zuten, «Emakunde gizartean izaten diren sexu des-

berdintasunak eragindako egoerak ezabatzeko politika publikoak bultzatzeko tresna egokia delakoan».

Emakundeko arduradunen oharrak ez zuen inon zehaztu Arteaga eta Fernandezek dimisioa aurkeztu ote zuten. Beraien ardurak «Emakundek beharrezko ahalbideez baliatu ahal izatea» izan dela besterik ez zuten argitu auziari dagokionez.

«Tentsioak» egon direla errekonoiztu zuten, «baina diru partiden banaketari zegokion tentsioa», zehaztu zuten.

EHUko irakasle funtzionari batek itxialdiari ekin dio

G. A. / BILBO

Unibertsitateak egin duena eta egin ez duenaren erabateko kontrako jarrera azaldu eta irakasle kaleratuekin elkartasuna agertu asmoz, Josu Izko de la Iglesia Bilboko Irakasletza Eskolako irakasleak itxialdi iraunkorrari ekin zion joan zen asteartean.

«Unibertsitateko ekintzen erantzule sentitzen naiz, partaide eta are gehiago, funtzionaria naizen heinean», azpimarratu du Izko de la Iglesia.

«Guk gure erantzukizuna dugu eta esan ohi den bezala isiltzen denak arrazoia ematen du. Behartuta sentitu naiz, bai moralki bai pertsona naizen aldetik, zerbait egitera. Iaz, 500 pertsonak kontratu administratiboa sinatu zuten, ez konbentzitutak zeudelako, baizik eta garaitu zite-lako. Aurten beste 90ek sinatu dute baita garaituek ere, eta bederatzi pertsona kaleratu dituzte».

Irtenbide negoziatuaren protagonistek kaleratutako irakas-


leak behar dutela izan uste duen arren, Izko de la Iglesia «behin eta berriz» planteiatu diren eskakizunetan oinarritzen du bere iritzia. Batetik, Unibertsitatearen eskubide eta betebeharra autonomian izan eta jardutea, eta bigarrenik, Unibertsitatearen autonomiaren jardura bere irakaslearen kontratazioan gauzatzea eskatu du.

KONTRATU DUINA ESKATU

Magisteritzako irakasle honek kontratazio duina eskatu du. «Lan estatutua ezarrit eta kontratu administratiboa baztertuz. Kontratu administratiboa langileen eskubideen kontratazio iraingarriko aitzakia lotsagarria da eta».

«Unibertsitatea bada nor kontratu administratiboa duina iruditzen ez zaiola esateko eta lan kontratua eskaintzeko. EHUk aukera dauka administratiboki kontratatzeko baina ez du obligaziorik», azpimarratu du.

Bederatzi irakasle kaleratuen egoeraren behin-behineko kon-



Josu Izko de la Iglesia.

XOUSE SIMAL

ponbidea da Izko de la Iglesiaaren laugarren eskakizuna. «Irakasle hauek kaleratu dituzte aurrera eramanez borrokagatik eta bere jarrera koherenteagatik».

Izko de la Iglesiaaren ustetan, Unibertsitatea da irakasle kaleratuek bizi duten egoeraren erantzule nagusia. «Ohizko aitzakia lan kontratudun irakaslearen eredu legekoa ez dela esatea da, baina hori eztabaidagarria da. Beste unibertsitate batzuek kontratu hori erabiltzen badute era-

bat legekoa behar du izan».

Legez kanpoko balitz ere, gizarte sistema demokratikoak instituzioak bere eginkizunak betetzera behartzen dituela esan du Izko de la Iglesia. «Unibertsitateak proposamen bitartez bere arazoak planteiatu eta irtenbideak exigitu behar ditu. Botere judizialak edo legegileak esan dezala: lege honek ez du balio eta aldatu egin behar da eta abar. Baina erantzunak administratiboa behar du izan».

LABURREAN

JAURLARITZA salatu du HBk Emakunderen auzia dela eta

HBk atzo salatu zuenez, Emakunderen auziak agerian utzi du Gobernuak eta lehendakariak ez dutela emakumeen arazoak konpontzeko borondaterik. Emakunde sortu zenetik «nahi eta ezin» ibili dela uste du HBk, eta erakundeak euskal emakumeen arazoan sustraierara jotzea helburu ez duela adierazi ondoren, «Emakunderen aurrekontu murrizketa dela eta berdintasunak Gobernuari zenbateraino axola dionarenberri» ematen duela dio HBk.

ZAURITU larri bat Tafallako ikasleen jaian

Miguel Sancho 19 urteko Funeseko (Nafarroa) gazteak zauri larriak jaso zituen atzo Tafallan (Nafarroa) eginiko ikasleen festan. Hiri erdian bera eta beste gazte bat eztabaidan eta borrokan hasi eta Sanchok eskumuturreko zaina eta tendoiak hautsi zituen. Tafallako udaltzainen ustetan, apurtutako botila batek eragin zion zauria.

GAZTE Kontseilua Bosniako haurrak ekartzearen aurka

Bosniako haurrak Euskal Herrira ekartzea ez du ondo ikusten Gazte Kontseiluak «integrazio zailtasunak direlako». Laguntza bidaltzearen aldekoak direla zehaztu zuen. Abuztuaz geroztik 47 pertsona joan dira Kroaziara. Berauen ustez, haurrak sendietatik aldentzea ez da ona «herri ezezagun batera joan behar dute eta bertan zer aurkituko duten ez ere dakite».

ELORRIKO autobidea onartu du Diputazioak

Bizkaiko Diputazioak gobernu kontseiluak Elorriko autobidearen trazaketaren proiektua onartu du. Berau Beasain-Durango korredoreko zati bat da Aitor Esteban bozeramailearen hitzetan. Autobideak lau kilometro izango ditu luzeran eta horri esker autoak nahiz kamioiak ez dira Elorrio erditik igaroko.